



AKELARRE - N. Basterretxea




EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN




MAHATSERRIK ALDIZKARIA
Deabruak

2000ko IRAILA 25. zkia.
125 pzta.

DEABRU DELTZAK
"DEABRUAK
ESKENATOKIAN"




BEGOÑA ETA EUSKERIA:
ADELA MENTXAKATORRE



BEGOÑAKO ANDRA
MARIAREN KORONAZIOAK

Txetxu Rojo:
«Athletic eta herriaren
arteko lotura ez da inoiz galduko»

Betikoak



ANDRA MARIARI KOROA EZARRI JAKON EGUNA

Oraingo erretratu honek ehun urte bete dauz hile honetan bertan. Begoñako Andra Mariari koroa ezarri jakon eguna da, irailaren 8a. Hortaz luzeago jarduten dau Bertón-en barruan datorren artikulu luzeak. Baina gure argazkitxo honek daukona da Ama Birjiñaren irudia koroa jantzita eleizaren etarte aurrean. Gainean latinezko berba sorta bat dago Aita Sainduak berak koronazioaren alde egon zala lau haizetara zabaldu nahi dauena. Eta ondoan, jendea. Milaka eta milaka lagun Bizkaiko bazter guztietatik etorrira.

Argazkia Román Alonso eta Luis Amannen "Bilbo eta bere itsadarreko herriak postatxarteletan" liburutik hartua da.

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Martínez,
Joana Etxebarria,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Leire Altamira,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKE-
TAZIOA:**
Iñaki Berastegi,



KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez,
Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde,
Igor M. de Vidales,
Santutxuko Bertso
Eskola,
Igor Zorrozueta,
Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoe-
txea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000



▶ Betikoak	2	▶ Mahatsberriak	19
▶ Iritzia	4	▶ Irakaskuntza	23
▶ Bizkaia Irratia	5	▶ Taldea: Urtxintxa	24
▶ Begoña eta Euskerea	8	▶ Kirolak	26
▶ Erreportaia: Begoñako Andra Mariaren Koronazioa	10	▶ Mendi Ibilbidea	27
▶ Bakarka: Txetxu Rojo	15	▶ Kultura: Deabru Beltzak.	28
		▶ Horoskopoa/Agenda	30

Futbolagaittik, ni zoratu ez naz egiten, baie, poztasune emoten dau bertoko bat Athletic entrenaten ikustiek.

Ze, Athletic-en beti egon da mahatsorin bet, akordau Garaigaz, harek Barcelonan akabau zeuen dana dala.

Ta esan bere, Rojok beti esan dau bera Begoñekoa dala. Ez askok egiten daurien modure, hamen bizitza guztidixe, eta gero nonok preguntau ezkeron nungoa dan: "Bilbokoa, debilbaodetodalavidajoder!" – harek kontesteu.

Ba, nik Begoñan independetzidixe ez dot eskatuko. Total, aiuntamentoa aspaldidixen bota zeurien ta, oin atzera emongo baleuskigue nun ifini bere ez deko. Ze, Artxandako puntan ifinten ez badogu, beste guztidixe okupaute dago, ta esaiotsazu batan bateri,


aiuntamentue ifini bier dogule bertón eta etxetik joateko. Ta harek esangotzu: "Joan? Honek pisuek balidxo dabenagaz, ze aiuntamentue ta zekarajo!"

Ta, arrazoie! Oingo piso potozorri batek lehengo baserri guztidixek baino gehiago balidxo dau. Ta ganera, ez orturik, ez kortarik, ez bekosurik, ez solorik ez ezer...

Baie, letxes! Hamekoa bazara, esaixu! Badakigu bilbainoak esaten dauriela eurak gure daurien lekuen jaidxoten direzela, eta gure dozun guztidixe! Gu, barriz, jaidxo, ez dakitt nun jaidxo garien, baie ixen, amekoak gara, ta ixengo gara, ta ez gara inor baino gehiago, ezta gitxidxago bere.

Guri ez doskue Gugenjain ta halangorik ifini – beharrik bere ez– baie guri eskerrak dira hainbeste bilbainoak.

SANTUTXUKO ALICANTE ETA ALMERIA KALEEN ESANGURAREN INGURUAN



1936-1939ko gudua amaituta, urte asko pasatu izan ziran, gose gorria jaun eta jaube zala. Hori izan zala eta, espainiar estatuaren barruan ez zan herraldatze-mugimendurik izan, 1950eko hamarkadaren azken urteak arte.

Bada, Francoren erregimenaren sasoi hartan, Bilbo haunditu zanean, Espainiako probintzia batzuen izenak ipini jakezan kale batzuei, besteak beste, Santutxu eta San Inazioko auzoetako kale batzuei.

Bada, Alacant probintziaren espainiar izena

ipini jakon kale bati Santutxun. Kale horrek Iturriaga kalean dau hasikerea.

Sasoi eta taxu bereko kalea dogu Almeria izena hartu ebana. Kale hau Albacete kalearen ondoren dago, eta aurreko kaleagaz eta beste batzuk batera, "espainiar probintzia" batzuen multzoa osotzen dau Santutxun. Hori ez eze, kale honegaz bada jazoera berezia; egin-eginean bere, kale horri izena 1958. urtean ipini jakon, eta Almeriako uriburuan kale bati "Calle de Bilbao" izena ipintzearen truk jarri jakon izen hori kale honi.

GOTZON LOBERA REVILLA

**Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia
(Kultura Saila-Bizkaiko Foru Aldundia)**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herraldea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura



**Nork ez du irratia piztu eta Bizkaia Irratiarekin topo egin?
Seguraski etxe ugari alaitu ditu, baita askoren
bakardade uneak arindu ere. Baina ziur gehienok
ez dakizuela irrati hau Bilbon bertan daukagula, hain
bizkaiera goxoa erabiliz Arratia edo Ondarroa
aldean kokatua dagoela ematen duen arren.**

Testua: Joana Etxebarria.

Argazkiak: Xabi Herrera.

Fontecha y Salazar kalean, Artxandako funikularra hartzen den lekuaren ondoan dago Bizkaia Irratia. Norbaitek bisitatzeko gogorik balu bederatzigarren portalean aurkitzen dela esan behar dugu. Instalazioak bertan ikusteko aukera izan dugunok leku atsegina dela esan dezakegu, giro epel bat sentitzen den tokia.

Horrela ba, bertara hurbildu eta Kepa Uriarterekin mintzatzeko parada izan genuen eta honek informazio zabala eman zigun BERTON aldizkaria irakurtzen duzuenok Bizkaia Irratiaren nondik

norakoen berri izan dezazuen.

Bizkaia Irratia 1990. urtean sortu zen eta, zehatzago esateko, urrian jarri zituen uhinetan lehenengo emisioak. Ordurarte martxan zegoen Herri Irratiaren esperientzian oinarritzen da. 70. hamarkadan zehar hasi ziren euskarazko emisioak bertan. Aipaturiko Herri Irratia, jakina denez, Bilboko gotzaindegiari zor zaio. Gotzaindegiak Bizkaiko jende euskaldunari begira pastoral zentzun bat eman nahi zion irratiari. Horretarako euskarazko emisio bat beharrezko ikusi zuten. 1982an egun erdiz

euskaraz egitera heldu zen eta horrela apurka apurka gaur egunera iritsi arte.

KOSTALDEAN ETA ARRATIAN

Bizkaia Irratiak arrakasta gehien euskera asko erabiltzen den herrietan izaten du. Euskara herriotako bizimoduari sendo atxikitutako hizkuntza den heinean bizkaierazko irrati honen entzule kopurua nabarmen igotzen da.

Itsasaldean, Ondarroa, Lekeitio, Bermeo bezalako herriak dira emisoaren "feudoak"... eta baita barrukaldean be Arratia osatzen duten herrixketan eta Galdakaon esaterako. Gainera Durangaldean piskanaka piskanaka jendeak interes gehiago adierazten du Bizkaia irratiarekiko.

BILBON BE ENTZULEAK

Bestalde, audientzia azterketetan argi asko ikusten den bezela Bilbon ere entzuten dira bizkaierazko emisioak. Hemengo jendearen artean Bizkaia irratiko entzuleak, gehienak,

euskara berez erabiltzen dutenak izango lirarteke: betiko euskaldunak. Gehienak bai, baina ez denak. Zorionez, entzuleen artean euskera batua ikasiaz euskaldundu den jendea ere aurki dezakegun.


Baina laburbildu asmoz irrati honek Bizkaiko eredua jarraitzen duela esan liteke eta horregatik entzule gehienak eredu hau jarraitzen dutenak direla. Batez ere, betiko euskaldunak.

Bilbon azken urte hauetan entzuleen kopurua antzeko xamar mantentzen da, momentuz ez da gorakada handirik sumatzen.

***Herri irrtiaren
altzotik sortu zenetik
hamar urte
bete dira urrian***



Kepa Uriarte /Argzk. Xabi Herrera



Kepa Uriarte /Argzk. Xabi Herrera

***"Entzule gehienak betiko euskaldunak badira be,
ez dira euskaldun berriak falta"***

IRRATIGINTZA KONBENTZIONALA ETA MUSIKALAREN ARTEAN

Langileei erreparatuz, hamalau pertsona dabilta bertan lanean, guztiak egun osoz lan egiten ez badute ere. Kopuru hau ez da lar handia eta horregatik askotan nahiko justu dabilz gure Bizkaia Irratiko lankideak, baina baliteke hor egotea beraien bertutea.

Eskeintzen diren saioen artean goizeko programazioa da gehien entzuten dena. Goizez irrati konbentzionalagoa da eta arratsaldeko lehen orduetan, ostera, musikalagoa. Arratseko seietatik

bederatziak arte programazioa berriro ere konbentzionalago bihurtzen da. Orduoro euskarazko musikak toki aparta dauka beretzat gordeta.

Bizkaia Irratiak aukera paregabea eskeintzen digu hiri handi eta kosmopolita honetako biztanleei bizkaierazko, herrietako euskarazko irratsaioretaz gozatzeko. Jada ez zaigu horren arraroa egiten kale gris hauetatik gabiltzala ingelesa entzutea, beraz horrelako irratiek egiten duten lana benetan eskertzekoa da.

Adela Mentxakatorre Arbolantxako Goikoetxen jaio zan auzo hau ondino Begoña zanean, San Justo ermita ondoko baserrira, (Etxartera) ezkondu zan 23 urtegez, eta alargundu ostean Zamalloanera ezkondu zan. Gerrea ere sufritu eban. Gaur egun Begoña alabeagaz Mungian bizi da. Erderaz egiten deusku batez be, euskerea tartekatuz, "euskerea ahiztu eta erderaz ikisi ez" dinosku.

Baztarretan jende hila topaten genduan, Jainkoa, hilda dago eta! "Hilak itzi eta aurrera segidu" esaten eban gure aitak, ordukoa itzela izan zan, itzela!

Begoña eta Euskerea

I. Gaminde, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

ESPAINIKO GERRA ZIBILA GURE HERRIAN ETA HAINBAT BEGOÑATARREN BIZIPENAK (III)

Berton.- Zu nongoa zara Adela?

Adela.- Arbolantxakoa

B.-Zenbat urte dekozuz?

A.-83 urte

B.- Orduan gerrea ondo ezetuko zendun ba zuk?

A.- Hemeretzi urte neukazan gurdia beterik Zallarantza joan ginanean. Gure aitak Basurtoko labaderoko harri baten ganean, txarri bat hil eban ezin genduelako gurdian eroan, tineku batean sartu eta Zallarantza joan ginan ahal izan gendun moduan. Inazio, neba nagusia, gurdian ostonduta eroan genduan, eta Agustin eta Jose Luis gaztetxoagoak.

B.- Ganadu guztia eroan zenduan Zallara?

A.- Bai hiru behi eta idi bi, gurdia idiekaz eta behiak gurdia lotuta, eta geugaz, ahiztaren aitagarreba eta amagarreba, itzela izan zan, itzela! Geugaz etorri ziran, Karmen, Susanita eta bere gizona Maiximo be bai. Zallako tren geltokirantza goazela, non enteraten da Susanita, bere ahizta Juanita geltokira botatako bonba batek hil egin ebala.

Errekatu batean egun bi egon ginan eta osaba Manu etorri jakun gorago joan behar dogula esanez. Eta han topa eban etxe bat, Jose Mari eritxon etxeke gizona eta esan euskun ez ginela guztiok kabituten han. Gure aitak dinotso ez larrituteko, ez dogula ogerik behar teiltupe bat nahikoa zala eta konponduko ginala. Jende on-ona zan, alaba bi eta semea eukien eta semea ganbaran ostonduta eukien milizianoek eroan ez egien. Etxeko alaba guardia zibil bategaz ebilen.



Hiru gau egon ginan han eta gure amak atera urten eban etxeke semearen bila etorri ziranean eta amak, han gu baino ez gagozala esan eutsien.

B.- Eta etxerako buelta zelán egin zenduan?

A.- Larrakotxeko Ramon eta Larrakotxeko Txomin, anai bigaz topa genduzan honantza urten genduan eta esan deusku, "nora zoaze?, postuak zabalik dagoz eta Bilbon ogi zuria salduten dabe, harantza zoaze ezta?"



Eta guk erantzun genduan "lotuazo egin arte aurrera goaz gu". Baina zubiak apurtuta egozan lez, idiek ezin eben pasatu, egur batzuk egozan eta ikaratu egiten ziran. Hartu eben aita eta errebisatu eben ea dirurik edo ekarren honantza, eta badakizu non ekarren?, txapelaren forruan! eta esan euskuen, "benga, hortik pasatu!" hortik ezin dira idiak pasatu!, rapa amak amantala erantsi dau eta aurpegi ostonduta deutsee idieri egurren ganetik pasateko, eta pasatu ziran.

Matalobosetik gatozela, Madariagako Anbrosiok esan deusku "nora zoaze?, etxe guztiak bota deuskuetz". "Gurea ez" dino aitak "ikusit dot eta". Barruko horma guztiak apurtuta milizianoak alde batetik bestera pasateko eta teiltua hondatuta Santa Mañatik jendea hiltzeko jaurtiten ebezan kainonazoakaz,

B.- Zallara urten baino lehenagoko akordurik badekozu?

A.- Ibarsusiko tunelera joaten ginan, fiolato dagoen lekura, aitak goizean eroaten ginduan, hiru sirena jotzen ebezan eta hirugarrena zan arriskutsuena.

B.- Zuen baserritik asko tardatuko zenduen ba tunelerraino ezta?

A.- Ai, ez, ez, Etxetxikerretik behera ez genduan ezebe tardetan, atoan ailegaten ginan, amak bokadiloak emoten euskuzan eta ala!

Gure ama arrebaz lotuten zan ze arrebak ez eban urten gura izaten. Gau batean Amustin egozela, (Santa Marina behean eta Etxebarri ganean), ahiztaren aitagarreba eta amagarreba ere karlistak ziran, ahizta preparaten da Amustira joateko amagarrebagaz, bere semeak mezu bat bota deusola, handik datorrela esanez. Aitak dinotso, "zu ez zara hemendik urtengo, doala bera bakarrik gura badau", Matrimonio hori etxean bakarrik geratu zirela eta hartu eban gure aitak etxean eta eurekaz etorri zan beste matrimonio bat be bai. Gure aitak desgustu handia hartu eban Begoñako forala etorri jakonean eta esan eutsen "Mentxakatorre jende txarra sartu dozu etxean", Zaldiba-

rren edo ez dakit bere izena, "Mentxakatorre, ni neuk bizitza salbatuko deusut ze zeu ez zara jendillaje horretakoa eta."

B.- Noiz arte egon zineen etxean, Etxebarritik edo hortik datozela?

A.- Ez, ez, hurrago, hurrago! Horrek egongo ziren Arbolantxa Gaine, Larrabetik eta hortik ze estradatik pasaten ginanean, baztarretan jende hila topaten genduan, ¡Jainkoa, hilda dago eta! "Hilak itzi eta aurrera segidu" esaten eban gure aitak, ordukoa itzela izan zan, itzela!

B.- Zuk San Justoko ermitea ezetu dozu?,

A.-Ermitea zelán ez neban ezetuko, ni han bizi nintzen eta! Etxartera ezkondu nintzen 23 urtegez eta santuak eroaten be ezetu dot. Etxarteko etxearen uzaba aberatsa zan eta etxea sanatorioari emon eutsen, bere izena Briñas zan eta horregatik pabilioari Briñas izena imini eutsien

B.- Nork jagoten eban ermitea?

A.- Pantxike amagarrebak eta koñatak

B.- Baserrian ondoan landak edo zer egoan?

A.- Ermita ondoan soloak egozan, garia, artoa eta kamiraino landak.

B.- Eta ganadurik edo?

A.- Bai, ehun bat ardi eta zortzi behi.

B.- Artileagaz zer egiten zenduen?.

A.- Saldu. Jende asko etorten zan, ezkonduetako egozkan eta holan. Ebagi ostean artilea zabaldu egiten zan sikatuteko egun bi edo hirutan eta gero batu egiten zan.

B.- Gero alargundu zinan ezta?

A.- 32 urtegez alargun lotu nintzan eta 6 urteren buruan Zamalloanera ezkontu nintzen.

B.- Zu bendejeagaz joaten zinan plazara?

A.- Ni astoagaz joaten nintzan Bilbora, eta amantala jantzita eroaten neban lez, "la de la roseta, la de la rose-ta" esaten eustan Indalecio Prietok. Amak astoa berduz beterik eroaten eban Bilboko plazara eta Adoratrices komentuan Indalezio Prietok kuartela eukan eta soldadu batzuk eukazan beragaz, eta pasakeran kantaten eustan "Ya va la verdulera, ya va la verdulera..." kanzinoa. Jose Antonio Agirre be ezetu dot Bitoriko Virgen Blancako jaietara joan ginan baten. Aitagaz joan nintzen eta batzoki batera konbidatu euskuen. Oso ona zan baina isila, ez eutsun ezebe esaten. Gure aitak asko sentitu eban hil zanean.



DEBOZIOZ GAINEZKA

BEGOÑAKO ANDRA MARIAREN KORONAZIOAK

MILAKA ERROMES BATU ZITUEN DUELA EHUN URTE

1900ko irailaren 8an Begoñako Andra Mariari harribitziz zamatutako koroa ezarri zioten buruan. Ekitaldi honek Bizkaiko gizarte osoa astindu zuen. Asteaz zehar milaka erromes hurreratu zen basilikaraino eta zapatu hartako ekitaldi ofizialean jende multzo ikaragarriak azaldu ziren Ama Birjiñari men egiteko asmoz. Mobilizazioak arrakasta osoz egin ziren arren, ezkerreko sektoreek kritikarik zorrotzenaz erantzun zuten, karlista, integrista eta jeltzale jaiotako aletik hain zuzen

Testua: Hektor Ortega

Argazkiak: Aristides Artiñanoren "Coronación de Nuestra Señora de Begoña" liburutik hartuta dagoz. Foru Liburutegiak

Ideia, Andres Mañarikua historia-lariari kasu eginik behinik behin, Aristides Artiñano karlista ezagunaren buruan egosten egon zen Begoñako parroko Juan Kruz Unzetari azaldu aurretik. Biok ados jarrita, Andra Mariaren koronazioaren asmoa lau haizetara zabaltzeko ardura aita Juan Jose Lekandaren esku utzi zuten. Honek El Nervión egunkaritik bete

zuen bere eginkizuna. Bultzatzaileon ustez, ekitaldi hau zen Bilboren seigarren mendeurrena ospatzeko modurik eta egokiena. Lan taldeak osatuta, 1900ko martxoan Vatikanori eskakizuna bialdu zioten. Maiatzaren 3an izenpetu zuten Erroman baiezko erantzuna. Geroztik lan eta lan jardun ziren Bizkaiko herri-


tar gehienak ospakizun hauetara eroateko asmoz. Kanpaina erraldoia egin eta gero, astebeteko ekitaldien ordua ailegatu zen. Irailaren 3an hasita, asteleheneetik barikura arte Bizkaiko eskualde bakoitzak bere erromeria egin zuen Begoñaraino. Lehengo Enkartazioak, Urduña eta Aiara-Urkabustaiz arabarrak gero,

Aurreko orrian: Ama Birjiñari koroa ezarri jakon unea. Margoa da. Eskumaldean: Neskaneen prozesioa. Zabalbide gora, Begoñarantz geldialdia egin zuten argazki hau hateratzeko

Ezkerraldea, Busturialdea, Uribealdea, Arratia eta Durango azkenik. Egunez egun herrietako erromesak Begoñako eleizara eta inguruko baso zelaietara heldu, fraile zein abadeen predikuak entzun eta azkenean kantari agur esan ohi zioten Andra Mariari. Bermeo, Gernika eta Bakio aldekoak egon zirenean, esate baterako, aita Daniel Baertel frantziskotarrak honako koplak hau kantetan paratu zituen entzuleak:

Alperrik infernuak hartuko dau damu; orain, gero eta beti, zuriak gera gu.

Egunotako erromesak bostehun eta bi mila bitartekoak izan ziren, eskualdearen arabera. Baina irailaren 8an koronazioaren ekitaldi ofizialak marka guztiak hautsi zituen. Goizean goiz, Begoñako eleizaren inguruko harizti eta zelaietan milaka lagun batu zen Ama Birjiñari koroa ospetsua -Maria Agirre andrearen bitxiez osatutakoa- zelan ezarri behar zioten ikusteko gogo biziz. Honen ostean, hañgo landa eta zuhaztietan bazkaldutakoan, erromes multzo handiek Andra



Ama Birjinaren irudia
Bilboko Santiago katedralera
jaitsi zuten

Bazkide txartela

Izen deiturak: _____ ENA zenbakia: _____
Helbidea: _____ Herria: _____ Posta kodea: _____
Telefonoa: _____ Lanbidea: _____ Jaioteguna: _____



Partehartze mota:
Bazkide soila
Ekintza jakinetan laguntzaile
Lantaldeko partaidea

Ordainketa:
Kontu korrante bidez
Asapalaren kontuan
3035 0071 6 071.105864.2

Kuota korrante bidez
 500 pta
 1000 pta
 2000 pta
 pta



Goian: Prozesioa Zazpi Kaleetan, La Cruz kalean.

Eskumaldean: Zabalbidetik behera Bilborako bidean.

Mariren irudia Bilboko Santiago katedralaraino lagundu zuten. Basilikatik atera eta Zabalbidetik behera prozesioak San Anton, Bilbo Zaharra, San Francisco, Zabalburu, Hurtado de Ametzaga, Plaza Zirkularra eta Areatzako zubia zapaldu zituen. Segituan Zazpi Kaleetatik barrena katedraleran sartu zen.

Gau osoa Bilbon eman eta gero, biharamuneko arratsaldeko hiru t'erdietan Begoñarako bidea hartu zuen. Prozesiootan Bizkaiko agintari nagusiek eta gizartearen hainbat sektore nabarmenen ordezkariak leku aparta bete zuten. Abesbatzak, abade eta fraileak, Goardia Zibila, Ondarroako mariñelak, andrazko aberatsak, eta milaka lagun, uriolaka, Bizkaiko bazter guztietatik etorriak.

Mobilizazioa arrakastatsua, duda

barik. Eta ez zen horixe gelditu. Hurrengo egunetan oraindino erromeria gehiago Begoñara: oñatiarrak, San Francisco auzokak -langile auzo hau koronazioaren gatazka politikoaren ardatza izan zen- eta Bilboko neskameak. Azken honeik erderaz eta batez be euskaraz kantatu zioten Begoñako Andra Mariri urriaren 2an:

Berandu bada ere gaur bagatozkitzu zuk zere mantupean gu gorde gaitzazu

Agur, agur, agur María



Gorde, gorde Euskal Herria.

...ETA IDEIA TALKA

Debozio handiko egunak eragin zituen koronazioak edota, garai hartako euskal prentsak deitu zionez, "Buruntzialdiko jaiak". Baina tentsioa be ez zen makala izan. Ordurako erlijioaren inguruko kontsentsua aspaldian zegoen apurtua eta ageri-agerian jarduten ziren katolikotasunaren kontra ez

eze, edozein erlijio motaren aurka oldartzen zirenak. Ekitaldiaren bultzagileek hain kanpaina indartsua jarri zuten abian ezen gizarte osoa alde ala kontra azaltzera behartu zuten. Jakina, alde agertzea zelan edo halan eskuin tradizionalistaren alorrean -karlistan, integristan ala bizkaitar/jeltzale sortu berriaren- lerrokatzea zen. Ondorioz, aurkako jarrerak ezkerreko sektore langileak beste babesik ez zeukaten. Baina baze goen egon, bestelako posizioetatik koronazioaren "kutsu politikoaz" nazka egindakorik. Bilboko Udalako gehiengoa, esate baterako.


Iraileko aste kritikoaren erdian, koronazio jaia baino hiru egun lehenago bakarrik, Bilboko Udalak Ama Birjiñaren irudia Santiago katedraleraino eraman behar zuen

miento con visos de hostilidad de la Corporación Municipal, constituye un atentado inaudito...».

Begoñako Udalak, ostera, aho batez babestu zuen koronazio jaia. Garai hartako alkatea Carlos María Orue zen.

PRENTSA BORROKA

Baina Bilboko Udalaren erabagiak errealitate sozial sakonago bat isladatu besterik ez zuen egin. Bazeudelako egon jai-sorta osoa erlijiokeria hutsatzat jotzen zutenak. La lucha de clases astekaria, esate baterako, langile sektoreen bozemale peto-pettoa. Irailaren lehenean, zer etorriko jakon usainduaz edo, kazetari batek honakoa idatzi zuen: «Dice un periódico local que a juzgar por las noticias que se van recibiendo va a ser considerable el número de peregrinos y devotos que asistirán a la fiesta de la Coronación de la Virgen de Begoña. ¡Horror!;Aquí nos vamos a ahogar



Prozesioa Begoñako basilikaren ostean.

en agua bendita!».

Eguna hurreratu ahala, ostera, holako txantxa bigunak desagertu ziren eraso gordinei lekua utziaz. Bilboko Udalaren jokaerak, bate-tik, eta prozesio beraren arrakastak, bestetik, alde bien jarrerak zitaldu zituen. Ezkerreko zinegotzian kontra gogor jo zuten egunkari erlijiozaleek eta Diputazioa - Enrique Aresti presidente zuela-jarri zuten eredu. Prozesioaren

San Francisco auzo ezkertiarra izan zen prozesioaren helburu nagusia, Flandesen pika bat ezarri nahian

ibilbidean zehar, eta batez be ezkerreko sektoreen gotorleku ei zen San Francisco auzo langilean barrena, herritarren babes ezin zabalagoa behin eta berriz erabili zuten euren etsai politikoaren kontra.

Euskalduna astekariak baserritar eta itsasgizonen esku hartzea goraiatu eta

gero honako zehaztapena nabarmendu zuen: «Desde el puente de San Antón al de Cantalojas -Bilbo Zaharra eta San Francisco, alegiasólo dos balcones aparecieron desnudos y tristes. El balcón de los evangélicos y el del domicilio de las llamadas sociedades de resistencia. Puede decirse, pues, que ni éstas ni aquellos se asociaban al espectáculo religioso, no compartían con los vecinos en la alegría». Protestantek eta langile mugimenduko elkarteak, beraz, ospakizunetik kanpo lotu ziren bakarrak. Horrelako komentarioei La lucha de clases astekari sozialistak ironia erasokorraz eman

Aukera paregabea

SANTUTXU

Santutxu Euskal Eskola
 ▶ Padre Pernet, 9. tel.: 944731 460
 ▶ Arbidea, 21. tel.: 944 117 656

matrikula epea zabalik!

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
 Ke-irteerak eta Ur-hodiak
 Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefona: (94) 669 32 79
 Mugikorra: 908- 45 16 22



en este país de viejos sátiros y jóvenes libidinosos». Gatazkaren gordina beste albiste labur batek jakinarazten digu. Astekari sozialista berak argitaratu zuenez, irakurleak galdu eizituen Ama Birjiñaren aldeko kanpainaren indarraren indarrak: «El suscriptor de Lanestosa Miguel Fernández ha matado

Ezkerraldean: Batzorde antolatzailea. Besteak beste, Estanislao Labayru historialaria, Resurrección Azkue euskalaria eta Juan Kruz Unzeta, Begoñako parrokoa dagoz. Behean: Comisión de señoras. Protagonismo handia hartu eben andrazko aristokratikoeak.

zien aurpegi: «Algo se ha abusado de la comparsa pero eso ha llenado no poco y no ha descompuesto el conjunto. Hasta las casas de lenocinio pusieron colgaduras en sus balcones al paso de la Virgen. Hubo en esto la belleza del contraste».



BIRJINA GUTXI
Izan ere, langile astekari honen iritziz, koronazio jaiak bide eman zuen "para que los carlistas hagan un alarde de fuerzas". Geroago zehaztu zuenez, prozesiotan parte hartu zutenak ziren "las hordas carlo-integro-bizkaitarras". Eta ekitaldia kritikatzeko artikuluen artean ez zen falta izan kanpaina erlijiosuaren bultzatzaileen hipokresia, kapitalista aberats eta euren andra aristokratikoen hipokresia alegia. «Nuestras aristocráticas damas han paseado con provocadora osadía


Putetxeetako balkoiak be Andra Maria agurtzeko hornidurez agertu ziren

por los barrios obreros sus valiosas alhajas y el clero el oro acumulado en los palacios episcopales, en los conventos y en las iglesias». Eta kazetari berak ezin izan zion zirikatzekeo tentazioari eutsi. Birjiñaren koronazioaren benetako arrazoia «suponemos no ha sido otro que el de quedar muy pocas dos pájaros de un tiro: ha venido a encomendarse a la Virgen de Begoña y a ponerse a bien con la administración de este semanario. Y de paso se nos ha dado de baja porque el cura de su pueblo le ha impedido, por lo visto, que lea este periódico impío».

Lanbroa

MESÓN URETXE
Santutxuko poteo gunean

PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!
SAAK



eIkkarriZketa

«Athletic eta herriaren arteko lotura ez da inoiz galduko»

Testua: Arrate Díez.
Argazkiak: Iñigo Azkona.

Begoñako La Cruz auzoan jaio zen orain 53 urte. Mallona inguruko landetan hezi zen ezker erdilari bikaina izateko baina futbolaren gorabeherek aurrerago jarri zuten, 11 zenbaki historikoa bizkarrean Piru Gainza bere idoloaren oinordeko gisa. Iribarren ostean bera da alkondara zurigorriaz partidu ofizial gehien jokatu duen futbolaria. Athleticeko legenda bizi hau etxera bueltatu da lehenengo ekipoaren ardura bere gain hartzeko.

TXETXUJO

Zelan bizi izan zinen umetan Begoñan? Zu La Cruz auzokoa zara. Zelakoa zen orduko Begoña?

Ondo bizi izan nintzen, orduan zelai eta landa asko zegoen eta. Geuk Mallonako futbol zelaia geneukan baina sarritan ezin genuen bertan olgatu. Halakoetan inguruetako landetan jokatu izaten genuen. Eta nire auzoan, La Cruz auzoan, egon bazen futboleko non jardun, toki aldapsua bada ere. Eskola be baze goen eta umetan egin ohi diren gauza guzti horiek. Leku asko zeuden gure eskura, korrika egiteko oso egokia zen eta horixe zen niri gehien gustatzen zitzaidana. Nire umetako garaiaz oso oroitzapen gozoa gorde dut.

Non hasi zinen futboleko? Talderen bat?

Egia esanda, lagunak hasi nintzen futboleko Begoñan. Ume guztiak bezala La Peñan hasi nintzen arte. Baina han hasi baino lehen tokian tokiko txapelketetan parte hartu ohi genuen, Deustuan, ... Infantil mailakoak izaten ziren. Talde bat osatu eta txapelketara. Geroago ekipo bat antolatu zen, Peñarol, eta bertan hasi nintzen 12-13 urte nituela La Peñan

jolasten. Esan ditudan txapelketa horietatik atera zen hein handi batean. Eta hala-ko txapelketa batean hain justu, Deustukoan erratuta ez banago, Firestone taldeak fitxatu ninduen. Bai, enpresaren taldeak. Hamalau urte nituen. Eta honeik biok dira ni egon naizen ekipo bakarrak: Firestone eta Athletic. Lehenengoan 14tik 17ra arte, orduan Athletec deitu ninduen eta.

Begoñara joan ohi zara? Harremanik bai zure auzoagaz?

Noizik behin baino ez noa, azkenaldion aldarte luzeak eman ditudalako hemendik kanpo. Lantzean behin Begoñako eskaileretatik gustura agertzen naiz. Ez noa sarritan baina gogoan daukat...

Aldatua dago...

Bai. Lehen egun osoa ematen nuen eskaileretan gora eta behera. Seguru asko hemen egin ditut neuk neure... -bere berak lastantzen ditu-. Gora eta behera nenbilen behin eta berriz gustu-gustura. Umeen artean lasterketak egiten genituen. Zoragarria zen niretzat. Orain auzora noanean gehien harritzen nauena da neurriak aldatu direla baieztatzea.

Umetan guztia zen handi-handia niretzat. Etxeak, oraindik han dagozanak, eta gainerako gauza guztiak. Zuk daukazun irudia da gehien aldatzen dena, zu zeu baino. Garai batean ikusitako gauzak denbora luzea pasa eta gero ikusten dituzu... Zure ikuspegia aldatu da.

Eta zelan ikusten duzu futbola Begoñan?

Egia esanda gitxitan joan naiz ikusten, nire lanak eragotzi dit eta. Badakit Mallonako zelaia zabaldu dutela, zelai bi osatu zituztela, eta inoiz egonda nago bertan. Baina aspaldion ezin izan dut partidurik ikusi kanpoan ibili naizelako edo gure partiduekin batera jolasten zirelako. Horregaitik ez dakit gauza handirik hortaz. Umetan partidu guztiak ikusten nituen, Begoña, Santutxu eta hainbat talde gehiago bertan jokatzen zutenean.

Mallona obretan dela jakingo duzu...

Bai, kontatu didate. Baina ez dakit gehiago. Behin amaituta joango naiz ikusten. Badakit lurraren ordez belar artifiziala jarri behar dutela. Ipiniko dutena azkenaldion erabiltzen dena bada, ondo. Pilotak ez dezala bote handiegirik egin.

Lehen zegoen arazoa zen pilotak bote handiak egiten zituela eta ez da gauza bera umeentzat eta profesional edo, beste barik, adin eta eskarmentuko jendearentzat. Azkenaldion belar artifizialaz egindako zelaiak oso onak dira. Jakina, neuk belar naturala daukat gustukoan baina badakit horrelakoak ezin direla mantendu gero. Belar artifizialezko zelaietan sikeran badakizu pilota kontrolatu eta jokatzeko moduan egongo zarela.

Gaur egun errazago ala gaitzago da bertoko gazte bat Athleticeira iristea?


Bardin antzean beti. Holako konparazioak ondo egitea zaila da. Bolada batzutan jokalarik asko ateratzen dira, geroago urriago, ugarriago atzera be... Ez da erraza. Pentsa egizu zenbat jende datorren hona [Lezamara], batzuk hastera, beste batzuek jarraitzera, denak futbolari onak, gainera danak datoz eta dinoskue: 'hau da onena', 'hau da onena'... Eta gero urterik urte gaintu beharreko selektibitatea dago, ikasketetan bezalaxe. Zu mailaz maila zoaz eta bapatean urte batean gelditu egiten zara... izan ere oso zaila da lehen mailara heltzea eta elitean sartzea. Gutxi batzuk baino ez dira. Baina oso garrantzitsua da gero eta jende gehiago hona etortzea, denok gero eta gogo zein konfiantza gehiagoz janztea... Orduan bai aterako dira. Boladak izango dira baina atera aterako dira.

Zeure kasuan zelan izan zen?

Firestonen urte batzuk emanda nengoen eta, bitartean, Bizkaiko selektioagaz jokatu ohi nuen. Hamazazpi urte bete eta Athleticeira etorri nintzen. Urte hartan jokatu eta gero hurrengoan plantila profesionalen sartu ninduten. Firestonen urte batzuk eman nituen lagun bikainekin. Ekipo polita osatzen genuen eta ederto jarduten genuen futboleko. Gero, profesioaletara igarotzeak aldatu egiten zaitu.

Athleticen hainbat urtez ibili eta gero, zein da zure oroitzapenik samurrena?

Hainbat dago, jakina. Gaitz da bakarra esatea. Duda barik ekipoagaz deituta zoazen lehenengo egun hori, debutatzen duzun egun hori behin betiko gordeko duzu. Baina asko izan dira gero momentu goxoak. Ez bakarrik finalak irabazi genituenekoak edo finalak jokatu genituenekoak.



Eguneroko jarduna, taldekideakaz emandako une horiek sarritan oso politak izan ziren.

Alde handia dago 1991ean Athletic entrenatu zuen Txetxuren eta gaurkoaren artean?

Arlo profesionalen behar bada bai. Pertsona gisa ez. Adina aurrera joan ahala heldu egiten zara baina gaztaroko gogorari eusten diot oraindik ere. Hortan ez nago aldatuta. Lehen gauza batzuk modu batez eta orain bestela ikusten dituzu baina barruan sentitzen dudana, benetan naizena, hori oso garrantzitsua da ez aldatzea.

Eta zaila gero...

Beste alor batzutan aldatu egiten duzu bizitzak berak hainbat gauza irakasten dizulako. Hemen entrenatzaile gisa egon nintzenetik hona ba bai, aldatu egin dut urte asko pasa dira eta. Aldatu, batez be arlo profesionalen, zuk daukazun kontzeptuan baino gainerako gauzetaz darabiltzazun balorazioetan.

Athletic utzi eta gero inoiz bueltatuko zinela pentsatu zenuen?

Bai. Baina zure bizitza profesionala ezin duzu horretan pentsatzen eman. Athleticeira atzera be etorriko nintzela pentsa-tzen nuen baina hobe ez zara kontu bategaz tematzen. Nire eguneroko ahalegina gero eta hobeto egitea izan da, hurrengo urtean oraindik ere berma gehiagoz lan egin ahal izateko. Horixe izan da nire bilakaera. Athleticera etortea gailurra izan bada ere, ezin ditut ahaztu orain arte beso zabalik hartu nauten toki guzti horiek. Niretzat garrantzitsuak izan direlako eta lagun handiak laga ditudalako han hemenka

baloratu behar ditut.

San Mames berria beharrezko ikusten duzu?

Baietz uste dut, zinez. Penaz esango nuke 'hau da azken partidua San Mamesen', neure futbol bizitza gehiena bertan eman dudalako. Bain jende asko dago itxopenen bazkide egiteko. San Mamesetik hurre egingo balitz hobeto. San Mameseko gomuta gordetzea beste San Mames handiago eta erosoago batean. Zelai berria bai, zenbat eta azkarrago, hainbat hobeto gainera.

Zelan ikusten da Athletic hemendik kanpo?


Neuk pertsonalki partiduak ikusi, egunkariak irakurri eta gutxigorabehera baneukan nobedade guztien berri. Baina hortik kanpotik geuk pentsatu ohi duguna baino askoz be hobeto baloratzen dute Athletic. Jende gehienak bai, sikeran.

Athletic eta bere herriaren arteko loturak sasoitsu dirau?

Bai. Hori ez da inoiz galduko. Betiko gorde behar dugun lotura da hori... Eta utsiko diogu, seguru nago.

Euskarak ze toki dauka Txetxu Rojoren bizitzan?

Nik ez dakit euskaraz. Zeozer ulertu bai baina jakin ez. Euskara guretzat garrantzitsua da. Nire garaian oso zaila zen euskaldun izatea ez bazinen herri euskaldun batekoa. Baina neuk orain ondo ikusten dut eta denontzat aberasgarria dela uste dut. Neure seme-alabak txikitatik dira euskaldun. Ona da eta horrela segi dezala.



«HELBURU HANDIAK BEHARREZKOAK DIRA»

Zelan ikusten duzu denboraldi hasi berria?

Betiko lez, gaitz. Guztientzat oso lehiatua, baina konfiantzaz, baikortasunez eta segurtasunez. Jakin badakigu zailtasunak ugari dagozela, Athleticentzat ez eze gainerako ekipoentzat be bai. Horregaitik prest egon behar dugu ahalik eta hoberen egiteko, partiduak aurrera ateratzeko %100ean lan egiteko eta, horrela, denboraldia amaitutakoan egindako lanaz pozik eta harro egon ahal izateko.



Athleticeko jokalaritza taldea zelan topa duzu?

Ondo. Gainera, ezagutzen banauzu badakizu oso naturala naizela. Halako batean esaten didate: "Aizu, zoaz Athleticera". Zalantza izpirik ere ez nuen euki. Osterantzean, Zaragozan geldituko nintzatekeen Zaragozatik beste inora joango. Inora bez. Athletic bestelakoa da. Biharamunean niretzat oso gauza normala zen Athleticera etortzea. Eta horregaitik oso modu naturalean etorri naiz.

Athletic hemendik gutxira tituluaren bat edo besteren jabe ikusten duzu?

Zaila da. Eta zaila da aurretik esaten. Berbek ez dute baliorik, egindakoek bai. Hala bedi! Danontzat gaitza da baina guretzat are zailago. Begi bistakoa da hori. Baina une oro jardunean egongo gara ahal dugun guztia eginez eta ezer ere ez baztertu barik. Helburu handiak beharrezkoak dira beti eta gure arloan handienak desiratu behar ditugu. Gero gerokoak, gainerako ekipoen artean badirelako oso onak. Zaila da baina ez ezina.

Eta zaletuak zer? Lagunduko dizute?

Bai. Egin egin dute honez gero. Hona etorri baino lehen prentsako komentarioak esate baterako pisu handikoak izan dira niretzat. Baita ekipoarentzat ere. Gure eginbeharra da orain konfiantza hori itzultzea egunero ahal dugun guztia emanez. Batzutan hobeto eta beste batzutan okerrago jolastuko dugu baina beti gure ahaleginik handienaz. Batzuk goitik kamiseta zurigorria jantzita eta besteak beheitik, belarraren gainean, kamiseta zurigorriaz be bai. Batzuk zein besteak berdin da. Biak dira garrantzitsu.

GALDERA LABURRAK

- 1. Amets bat:** Athletic txapeldun.
- 2. Amesgaizto bat:** Bapez, espero dut.
- 3. Futbolari bat:** Asko izan dira. Ezin dut bakararra hartu. Neure gazte garaiko idoloa Piru Gainza zen.
- 4. Herri bat:** Hau.
- 5. Hobby bat:** Futbola, neure ogibidea dirudien arren.
- 6. Akats bat:** Baditut batzuk. Lar metodikoa naizela, bat esatearren.
- 7. Bertute bat:** Hauek ere baditut batzuk. Ezagutu arte ez dut jendea baloratu nahi izaten.

8. Film bat: Asko dagoz. Zinea asko gustatzen zait. Azkenaldion ikusi ditudan artean italiarena gustatu zitzaidan, "La vida es bella". Baina badira beste asko.

9. Musikagile bat: Musikan denetatik. Supertrampetik hasita Elviseraino, The Beatles, Paul Young, The Cars, ... Beharbada oraingo bolada honetan inoiz baino musika gutxiago entzuten dut. Peter Gabrielen "SOS" be asko gustatu zitzaidan.

10. Bazkari bat: Edozein. Danak ditut gus-tuko.

ZUK ZER EGITEN DUZU OPOR OSTEKO DEPRESIOA GAINDITZEKO?



MAITE
(SANTUTXU)

Kalera irten; hori da nire ustez psikologorik onena, eta gainera merkea



MAITE
(SANTUTXU)
Oporretan pentsaez, ahaztu euki dodazala, bestela...




SARA
(SANTUTXU)
Nik ez dekot depresiorik.



JOSUNE
(ALDE ZAHARRA)
Badago gainditzetik ala? Laneari hasi eta listo...



ELISABETE
(ZUMARRAGA)
Ez dot gehiegi sinisten opor osteko depresioan, beraz...



IMANOL
(SANTUTXU)
Udan egiten nuena egiten jarraitu eta ahalik eta gutxien agertu eskolatik.



ALEX
(TXURDINAGA)
Ezer berezirik ez, niretzat ez dago ezberdintasun handirik uda eta beste urtaroen artean.



MENDI
(SANTUTXU)
Mendira joaten naiz, hiritik irten eta haizea hartzera.



MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Uribarriko Gazte Olinpiadak'00

Testua: **Ixaso Perez**

Hiru asteburutan burutu dira olinpiada hauen lehenengo edizio hau, giro ezin hobean eta partehartzea bikaina izan delarik (Australiatik eredu berdina erabiltzekotan egon omen dira, baina COItik, antza, ez diete utzi). Abuztuaren azkeneko egunetan amaitzen zen izena emateko epea, eta erantzuna zabala izan da, Uribarrikoak ezetik Bilboko beste auzoetako taldeak ere animatu baitira esku hartzera. Guztira bederatzita izan dira iraileko hiru asteburutan zehar kirol ezberdinetan lehiatu direnak: Txikiak, Txabales, Indautxu, Errekalde, Alde Zaharra, Neskak, Panera, Kastaños eta Estarrai.

(Hemen aipamen berezia egin behar da, agian hurrengo batean aintzat hartu ahal litzatekeena. Bat izan ezik, Neskak taldea alegia, beste talde guztiak gizonen edo mutilen osatuak ziren, eta, ez al litzateke hobea talde mistoak osatzea?)

Irailean 2an eman zitzaizkien hasiera fronteniseko txapelketarekin Lezamako Trenbide Zaharra kalean dauden instalazioetan. Partidu interesgarriak ikusi ahal izan ziren eta, ondoren, ikuslegoa pozik joan zen pote batzuk hartzera. Hurrengo egunean patinen gainean denek euren trebetasuna erakutsi behar izan zuten lasterketa amaitzeko ahalegina galantak eginez.

Hurrengo asteburuan Artxandarako kronoeskalada bizikletaz burutu zen, artean zeuden marka guztiak hautsiz. Hala ere, talderen batek ez zuen egun horretan proba egin - lesioren bat tarteko edo -, eta 23an burutu zuen, eta ondo baino hobeto ere, errekorra ezarriz 11 minutu pasatuta. Indautxuko partaide hori, holako marka egin ostean ez zen konforme gelditu eta futbitoko partidu guztietan parte hartu zuen. Baina itzul gaitzean 10era, saskibalo partiduetara. 'Mutil hauek ez dute parkatzen, eta grina osoz aritu dira' kexatzen dira Neskak taldekoak, 'ez dakite jolasten jolaste hutsagatik'. Orientazio proba egin zenetik baten bat desagertuta jarraitzen du. Inork ikusiko balu...

FUTBITON GANORA GUTXI

Hirugarren asteburuan indarrak huts egiten hasi ziren. Paletako partiduetan partaide guztiak berdintsu ibili



ziren, batzuk paletan besteek baino 'zulo' gehiago bazuten ere. Finalak aurreko igandean futbitoko partiduak jolastu behar ziren. Taldeak goizeko 10etan geldituta zeuden Lezamako Trenbide Zaharra kaleko zelaian, baina ordu horretan talde bakarra eta beste baten bat gehiago. Antolakuntzako bat ere ez. Bezperako afaria gehiegitsu luzatu

zen eta. Ordu bete berandugo falta ziren taldeak agertzen hasi ziren, telefonoz arduradun bati deitu baloia ekar zezan, eta arbitroak hasiera eman zien partiduei, talde batzuetan 3 edota gutxiago izan arren. Dena den, iaz San Mamesen baino ikusle gehiago bildu zen hain ikuskizun dotore ikusteko!

Hurrengo asteburuan, lehen esan bezala eta Uribarri eta Matikoko jaien barruan frontenis, mus, saskibalo, pala eta futbitoko finalak jokatu behar ziren, beti ere jendeak baldintza fisiko egokiak bete ezker, hau da, doping probak ezetz esaten badu. Ikusi beharko. Hala ere, jaietako bigarren asteburuan, irailaren 30ean hain juxtu, Herri Kirolak baitan Olinpiadetan parte hartu dutenentzako afaria ere antolatu zuten. Ikuskizun paregabea zalantza barik.

Irabazleen izenak ez aipatzearen arrazoia, antolakuntzatik esan zaigun bezala, Olinpiadetako ispirituekin bat eginez, hauetan bilatzen dena parte hartzea da, eta ez irabaztea, eta emaitza ikusita, oso ondo atera da orokorrean. Izan ere, urtero-urtero egiteko prest agertu dira legezko denez lau urteetan behin egin beharrean. Bertan ba elkar ikusiko dugu!

bertin

EMAKUME TAILERRAK EUSKARAZ BEGOÑAKO UDALTEGIAN

Bilboko Udalak urtero antolatzen dituen "Emakumeentzako Tailerrak" egitarauaren barruan aurten bi izango dira gure inguruan euskaraz egingo direnak. Biak Begoñako Udaltegian gauzatuko dira. Lehenengoan musikoterapiari lotuko dira parte hartzaileek. Martitzenero egingo da, arratsaldeko zazpietatik bederatzietara. Tailer honen esparrua musika eta terapien arteko fusioaren inguruan murgilduko da. Besteak beste, norberaren barruan dagoen potentziala musikaren bidez azalaraztea eta ongizate maila handiagoa lortzea ditu helburu.

Bigarrenak bizimodu osasuntsua du izenburu eta egunetan goizeko hamarretatik eguerdira arte luzatuko da. Gorputza modu naturalez jagoten eta ingurua behar den legez zaintzen ikasiko dute tailer honetako partaideek.

Denetara Bilboko Udalak bost tailera antolatu ditu euskaraz, gainerakoak gaztelaniaz egingo dira eta. Bost hoietatik bi, esan legez, gurean egingo dira, Begoñako udaltegian. Beste bi Deustuan egin behar dituzte, erlajazioaz lehena eta bizimodu osasuntsuaz bigarrena. Bosgarren tailerra Zazpi Kaleetako La Bolsa jauregian burutuko da, "Emakumeok irakurle" izenburuz. Martitzenero batuko dira, arratsaldeko bost t'erdietatik zazpi t'erdiak arte.

BESTELAKO IKASTAROAK


Ez dira honeik Bilboko Udalak ikasturte



EHUN URTETIK GORAKO MAHATSORRIA: Consuelo Olaskoaga 103 urte bete zituen irailean. Adin horretara ailega zen egunean Begoñako andra honek omenaldia txiki bat jaso zuen. Gizartekintza saileko foru diputadu Ricardo Ansotegik eta Ongizate saileko zinegotzi Eusebio Melerok oroimenezko plaka bat eta lore sorta eskaini zioten. Consuelok berak argitu zuenez, urteetan gora joan arren, oraindik sasoitsu eta bere buruaz arduratzeko moduan dago. Zorionak!

hasi berrian abian jarritako ikastaro bakarrak. Formakuntza hobetzeko planak, hirugarren adineko pertsonentzat pentsatutako kurtsiloak edota kultur espresioak lantzeko tailerrak nonahi izango dira. Esate baterako, Otxarkoagako auzo-etxean bost talde osatuko dira goizean zehar 55 urtetik gorako pertsonen euren osasuna jardun fisikoaren bitartez hobetu dezaten. Manteimenduko gimnasia egiteko be beste horrenbeste talde eratzekotan dira, goizez lau eta arratsaldez bakarra.

Aerobica, gimnasia erritmikoa eta sevillan dantzatzeko ikasteko ere taldeak osatu behar dituzte bertan. Hau guztiau gutxi balitz, autoestima tailerra, arte plastikoak -olioa eta marrazki artistikoa-, arte aplikatuak, keramika, bateria eta gorputz adierazpen ikastaroak eman emango dituztela kontutan hartu behar da. Otxarkoagan ez eze, Begoñako udaltegian, Zurbarango auzo-etxean eta Uribarriko ikastetxe publikoan antzeko egitaraua eskaini dute.



ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org



MAHATSBERRIAK

JUSTUGUNE, EURIARI KASURIK BEZ

Santutxuko jaietan egin eban legez, Justugune goizean euria agertu zan nagusi. Abuztuaren 5eko erromeria kili-kolo jarri eban zeru ilun lainotuak. Peña Pa Yak suspertu dauan jai honen egitaraua bertan behera gelditzeko arriskuan egon zan. Baina, animoz eta festagrinaz gainezka, mahatsorri asko batu zan lehenengo Arbolantxan eta Abril mendiko Tetuaneko landan gero. Arbolantxako baserri bateko mahatsen gerizpean mezea emon eban Begoñako basilikako parrokoak eta ostean, oraindik euria zala, txokolateaz armorzua hartu eban bertan batu ziranak.

Ordubatak aldera Tetuaneko zelaian bertso saioa hasi zan, goardasolen babesean hasieran eta atertu ahala eguzkiaren laztan gozoak lagun geroago. Ehunen bat lagun aurrean Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak igo ziran oholtzara bertsotan jarduteko prest. Goi mailako koplagleokaz gozatzeko parada euki eban entzuleek.

sBertsoen ostean, poteoa txosnan eta herri bazkaria. Arratsaldean, herri jokoak eta eguna zarratzeko erromeria Xibiri taldeagaz iluntzean. BERTON be han egon zan uztail-abuztuko aleak mahatsorrien artean banatzeko gogoz. Justugunaz gozatzeko modurik euki ez zenduenontzat, hona hemen erro-

meriko giroaren harribitxi bat. Bertso-saioa gai jartzaileak Enrique Villar EAEn Espainiako Gobernuak dauan delekatuaren berbak ekarri ebazan gogora: «*kale borrokan dabilzan ia denak euskal izenak daukiez*». Hemen daukogu Unai (Unai Iturriaga) eta Enrique Villar (Sebastian Lizaso):



1. Unai:
*Burua ez deutsu argitu
 Zeuri eguzkiak
 Laster ikusten jatzuz
 Zeuri be azpiak
 Euskal izenak ei dauz
 Gasofaz bustiak
 GAL-ekoak al dira
 Enrique guztiak?*

2. Lizasok:
*Hori ez da egia
 Bestela akabo.
 Zu formaltzeko badut
 Behar hainbat gogo
 Eta edozer ez dezu
 Nigatik esango
 Patrulla hemen dabil
 Bakarrik ez nago.*

3. Unai:
*Bai, neuk be ikusi dot
 Gora eta behera
 Baina horrei hartu deuset
 Ertzainen tankera
 Ta hori da teoria
 Baten akabera
 Txoferra Mikel da ta
 Bestea Joseba.*

4. Lizasok:
*Horri buelta ematen
 Neretzat da errez
 Nahiz izenak aipatu
 Zuk halabeharrez
 Ta hoi en berri ondo
 Banekien aurrez
 Izenak euskaldunak
 Sentimenduak ez.*

JON ABRIL KAZETARIAGAZ ELKARTASUNA

Jon Abril kazetari nafararren kontrako muntaia salatu dute hainbat euskal komunikabidek. Nafarroako Bortzirietako eta Baztan aldeko Ttipi-Ttapa telebistarako Madrileko Audiencia Nacionalaren aurrean irudiak grabatzeagatik epaile espainol batek bost milioiko fidantza ordaintzea eskatu zion, kartzelara bialduko zuela bestela. Telebista espainoletan hainbestetan ikusi ditugun irudi berberak bere kame-raz hartzea delitua ei da euskal kazetari batek eginenez gero. Hemendik be, Euskarazko Herri Komunikabideen Topagunean kide dugun Jon Abrilegaz gure elkartasan osoa adierazi nahi dugu eta bere aurka hasitako prozedura bertan behera utz dezaten eskakizuna gure egiten dugu.

LEHERKETA ODOLTSUA BOLUETAN

Joan berri zaigun udako albisterik tristeena gurean gertatu zen. Hilabeteon goibela ilunago egin zuen abuztuaren 7ko gauean Boluetako bidegurutzean suertatu zen eztanda. Leherketak auto baten barruan joiazan ETako lau ekintzaileak hil zituen. Borrokalarion gorputzak zati txikitari barreiatu ziren han hemenka. Nortzuk ziren ezagutzea be zaila izan zen. Hurrengo egunetan hainbat izen eman zituzten ezagutzera iturri politikalek beste horrenbeste familien urduritasuna, sufrimendua eta etsipena eraginez.

Azkenean, lau militante independentisten izenak ofizialki baieztatu zituzten: Patxi Erremerentia markinarra, Ekain Ruiz hernaniarra, Zigor Aranbarri eta Urko Gerrikagoitia durangarrak. Hurrengo egunetan milaka lagun batu zen, Bilbon lehenengo eta euren herrietan gero, polizia ezberdinen presioari muzin eginaz lau hildakoak omen du gurean.

Herritarren gogoak zapuzteko asmoz, Madrileko agintariak eta bertoko auzitegiek euren botere osoa erabili zuten. Ondorioz, Markina eta Hernaniko Udalek hartutako erabakiak balio barik laga zituzten. Herri biotan bertako ekintzailearen zerraldoa udal areto nagusian paratzeko baimena emanda zuten. Hernanin, gainera, Ekain Ruiz herriko seme kuttun izendatu zuten. Erabagion ondorioak bizirik dagoz oraindik orain, bi herrietako udal kargudunen kontrako neurriak eskatuko ete dituen deliberatzeko jardunean baitago Espainiako Audiencia Nacional deritzon auzitegi bere-

ziko fiskalak. Gainera, Santutxun hiru gazte atxilotu eta kartzelara bialdu zituzten protesta gisa autobus bati sua eman izanaren akusaziopean.

GARZONEK EKINEN KONTRA EGINDAKO OPERAZIOAN HIRU SANTUTXUAR ATXILO

Irailaren 14ko goizaldean Jose María Aznarren aginduz Baltasar Garzón epaileak ezker abertzaleko "Ekin" erakundearen aurka zuzendutako operazioan hiru santutxuar atxilotu zituen. Orotara 20 lagun harrapatu zituzten jardunean aritu ziren 300 polizia espainolek. Auzitegi bereziko epaileak ETako zuzendaritza politikoaren kide izateaz akusatuko zituela zabaldu zuten komunikabide askok.

Atxilotutako mahatsorriak Olatz Egiguren, Bizkaiako Batzar Nagusietan EH-ko bozemalea, Ruben Nieto, gazte mugimenduko kidea, eta Patxi Gurdin dira. Gainerako hamazazpien artean Bilboko Udaleko zinegotzi Marta Perez Etxeandia dago, besteak beste. Hiru egun Madrileko polizia-etxe bateko ziegatan inkomunikatuta eman eta gero hogeitaxi atxilotuak epailearen aurrera eraman zituzten. Hamazortzi, hiru mahatsorriok tartean, kartzelara bialdu zituen Garzónnek, gainerako biak fidantza ordaindutakoan libre utzi zituen bitartean.

Hainbat esparru sozial eta politikotatik operazio errepresibo honen benetako aurpegia propagandarena dela nabarmendu zen. Izan ere, atxilotuen kontrako salaketak euren jarduera politikoa baino ez zuten oinarri, Garzónnek berak emandako autojudiziala irakurrita behinik behins

OLGETAN UME JAIA ZABALAGOA

"Zenbat Gara" elkarteak ikasturte honetarako asmo berriak plazaratu ditu. Orain dela lau urte, hau da, "Olgetan haur jaia" martxan jarri zuenetik hona umeentzako saio ludiko-kulturalak zabaldu eta sendotu dira igande arratsaldeetan. Betiko lez, Kafe Antzokia izango da leku aproposa.

Oinarri hori hartuta eskaintza zabaltzea pentsatu dute. Igandeetako ikuskariez gain larunbatetan "Bertoko jolas eta kirolak" izango dira, euskal kulturaren oinarritutako umeentzako ekitaldi eta joko aktiboak, hain zuzen ere. Honetarako kirol irakasleek, aktoreek, begiraleek eta abarrek parte hartuko dute.

Asteartean, berriz, bost ta erdietatik zazpietara "Alakiketan" izango dugu. Helburua hau da, erarik pedagogikoen eta musika zein dantzak erabiliz, euskal folklore eta ohiturekiko zaletasuna sortaraztea umeengan.

Beste aldetik, datorren urritik aurrera ostegunetan goizeko bederatzi ta erdietatik hamabi ta erdietara, host, eskola orduetan, ikastetxe ezberdinetako gaztetxoentzat ekitaldi parte hartzailea antolatu dute Kafe Antzokian.

hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia: Solairua:
 Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

E R R I K A R I K A G O R A



**NEGU EZ-FORMALA
IGAROTZEKO
AUKERA
APARTA
URTXINTXAREKIN
Zabalbideko
bere eskolatik
gizarte
dinamizatzaileak
prestatzen ditu**

Oraingo honetan bere egoitza gure artean daukan taldea ezagutzeko parada izan dugu, Urtxintxa eskola hain zuzen ere. Bere ikasgeletan giza taldeen astialdia zelan antolatu ederto jakingo duten pertsonak prestatzen dituzte, beti ere ikuspegi soziala galdu barik.

Testoa: ***Irene Berro Urrizelki***
Argazkiak: ***Iñigo Azkona***

Urtxintxa astialdiko hezkuntzarako eta susperketa soziokulturalerako eskola da, ekintza nagusizat irakaskuntza ez formalean prestakuntza sustatzea eta garatzea duena eta helburutzat gizarte ekitean jarduteko giza-agenteen prestatzea duena. Astialdia, natura, euskara, euskal tradizioak eta talde dinamikak dira, besteak beste, bere ekinaren ardatzak.

Eskola hau Bilbon sortu zen 1986an IPESen eskutik, ondoren Gipuzkoa eta Nafarroara hedatu zelarik. Hau da, Bizkaiko Urtxintxa Eskola sortu eta zertxobait beranduago Gipuzkoakoa eta Nafarroakoa sortu ziren. Egun hiru hauek batuz; Katzamizar Elkartea dagoela. Araban ordea ez dago halakorik. Hori dela eta herrialde horretan egindako ikastaroak Bilbotik eginak dira.

ELEIZAZ APARTEKO BIDEA

Sortu zen garai hartan astialdian zegoen hezkuntza guztia eleizaren menpe zegoen eta eskola honen erronka eleizatik urrun finkaturiko hezkuntza mota bat

ahalbideratzea izan da. Horrela, bere sorreran Urtxintxak Astialdiko begirale ikastaroa baino ez zuen eskaintzen. Kurtsiloa gazteleraz ematen zen. Dena den, urteak igaro ahala eta gizarteak horrela eskatuta, eskolak ikastaro eskaintza zabala egiten du egun, euskarari berebiziko garrantzia emanez.

Asierrek, Bizkaiko eskolako kideetako batek, gizartearen izandako aldaketaz hitz egin digu. Bere esanetan urtearen ondorioz zeozer nabari izan badute ikasleen izaeraren bilakaera izan da. Lehen eskolako ikasleek bertan ikasitakoa beharrezkoa zuten beren aisialdi taldeko dinamika aurrera atera ahal izateko, orain aldiz, gauzak zeharo aldatu dira. Bada jende asko titulua lortzearen baino ez dela gerturatzen, unibertsitateko kredituak betetzeko besteak beste.

Urtxintxak Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko diru laguntza jasotzen du, baita Joxemi Zumalabe fundazioaren laguntza ere. Azken honek herri mugimen-

Ikasleen motibazioak aldatu egin dira azkenaldion

duari formakuntza eskaintzen baitio.

EUSKAL JOKOAK

Aurtengo egitarauari erreparatuz gero, bada nobedaderik. Esate baterako, euskal jolasak beren-beregi landuko dituen ikastaroa, gure aiti-te-



ama-
men
oroitzape-
netatik edota
herri txikietako
inguruetatik gaur egungo hiri
handietako kaleetara gure kulturaren ondarearen zati
hori eramateko ahalegina. Gure arteko ume gehienak
euskaldun diren sasoi hauetarako ezin egokiagoa.

Horrela, ondorengoa da eskolak hasi berri den ikasturte honetarako luzatzen dizuen eskaintza. Hainbat ikastaro eta lagun mordoa egin eta izugarri ondo igarotzeko aukera.



BIZKAIRAKO AURTENGO ESKAITZA

- Astialdiko begiralea
- Astialdiko zuzendaria
- Naturan kirol-ekintzetan aritzeko begiralea
- Orientazioa, senderismoa eta mendi bizikleta
- Euskal Jolasak
- Suspertzaile soziokulturala
- Heziketa berezia
- Euskara suspertzailea
- Lehen sorospenak
- Drogamenpekotasunaren prebentzioan bitartekari

Zabalbide 26, behea BILBO
Tel: 944 320 445
urtxintxa@euskalnet.net

DAYTON
Reagge-festa
taberna
Santutxuko poteo gunean


ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU

TABERNA
Ricardo Bastida plaza

Mallonako zelaia azarorako berriztua

Testua: *Unai Cuevas*

Santutxu, Danok Bat, Begoña eta Solokoetxe ekipoetako hogeita hamar talde inguruk entrenatu eta jokatzen duten zelaia, Mallonak alegia, azarotik aurrera itxura berria erakutsiko du. Lanak abuztuan hasi ziren eta nahiz eta atzerapen handia pairatu udazkenerako amaiturik egongo dela iragarri dute. Bitartean, talde guzti hauek eta ia mila gazte inguruk Otxarkoagako Ibarsusi eta Zorrotzako zelaietan entrenatu behar izan dute ikasturtea eta denboraldia hasi aurretik.

Dagoeneko, denboraldia hasi da eta lehenengo norgehiagokak Ibarsusin bertan edota Basurtoko futbol zelaietan jokatu dituzte Mahatserriko taldeek. Hau guztia gutxi balitz, entrenamenduak, tokirik ezean, Etxebarria parkean burutu dituzte.

Mallonako berrikuntza lanei dagokionez, osagarritzko bi fasetan banatu dira. Batetik, zelai nagusia eta belarra jartzeko egokitu, harmaila berriak eraiki eta aldagelak eraberritu egingo dira. Honek, 50 milioiko aurrekontua suposatzen du.

BELAR ARTIFIZIALA

Bestetik, belar artifiziala jartzeko 37 milioi jarri beharko dituzte Bilbo Kirolak udal erakundeak. Esan beharra



Azarotik aurrera Mallonak aurpegi erakargarriago bat aurkeztuko du dago baita ere, iazko aurrekontuetan soberan geratu zen dirua erabiliko dutela gastu hau ordaintzeko. Belar artifizialari esker, zelaia jarraian erabili ahal izango da, hau da, partidu ezberdinen artean ez da denbora tarterik egin behar eta gainera jokatzeke baldintzek hoberantz joko dute. Honela, azarotik aurrera Begoñako zelai zahar honetara hurbiltzen zireten guztiok itxura hobetoarekin aurkituko duzue.

Zuharrak ohorezko mailara ailega da

Ezindu fisikoentzako saskibaloia taldeak gorengo kategorian jokatuko du aurtur



Zazpi urteko historiaren ostean, Zuharrak ezinduen saskibaloiko mailarik gorenera iritsi da.

Zuharrak saskibaloia taldeak denboraldi gogor bati aurre egin beharko dio aurtur. Ohorezko mailara igo ondoren (ezinduentzako saskibaloiko kategoriarik gorena), datozen hileotan Estatu espainoleko talde indartsuenen aurka jokatu beharko dute. Maila goren honetan aritzeak, besteak beste, aulkiak erosteko, bidaiak egiteko edota hotelak ordaintzeko dirua izatea suposatzen du, eta Zuharrakekoek ONCE elkartetik jasotako dirulaguntzaz gain zozketa eta bestelako ekintzen bidez bete

beharko dituzte gastu ezberdinak. Arlo ekonomikoarekin jarraituz eta aurreko urteetako miseriak alde batera utziz, 2000-2001. denboraldian Bizkaialde proiektu barruan sartu da eta ondorioz ezusteko diru iturria aurkitu du. Gogoratu, Bizkaialde Foru Aldundiak eta zenbait enpresek babesten dutela eta helburu ezaguna izan barik elitean dagoen kirola babestea duela.

JOKALARIAK TREBATU

Denboraldi berri eta itxaropentsu honetan Jon Agirrebengoa taldea zuzentzen arituko da. Iaz bigarren entrenatzaile lanetan jardundakoa da Jon eta beraz badaki zer nolako jokalariek dituen eta norainoko emaitzak lor ditzaketen. Hala ere, Zuharrakekoen asmoa batez ere jokalariek trebatu eta talde sendo bat eratzea da, multzo oso gaztea baita. Jokalarien batez besteko adina hogeita bi urtekoa da.

Aipatu, Zuharrak saskibaloia taldea orain dela zortzi urte martxan jarri zen proiektu dela eta saskiaren kirolaz aparte mahai teniseko talde bat dutela ere. Honetaz gain, atletismoa eta bestelako kirolak eskaintzeko asmoa dutela. Gauzak honela, BERTONeko orrialdeetatik jendea partiduak ikustera Txurdinagako kiroldegira hurbiltzera animatu besterik ez daukagu.

ELGEAMENDI (943 m.) Arlaban-etik

Barazar mendatetik Gasteizerantz joatean, Legutiano herria igaro bezain laster Landara joateko errepidea hartuko dugu. Hemen-dik abiatuz berehala Gasteizetik Bergarara doan errepidean egongo gara, Landa gure eskuinaldean utzirik. Arlaban mendatean aurkituko gara. Bertan bidebanatzea dago, ezkeralderantz Leintz-Gatzagara eta Eskoriatza (A) eta Bergarara. Inguru honetan utzi genuen autoa.


Errepidetik 200 metro jaisterakotan Eskoriatzarantz, eskumaldean bertan zuri-gorritz margotutako ikurrak ikus daitezke. Hauek jarraituz pista zabal batetan sartuko gara eta burdinazko atea (B) zeharkatu ondoren zelai antzeko batetan egongo gara.

Pista bitan banatzen da laster, biak eramaten dute tontorrera, baina guk eskuinekoa hautatu genuen igoteko. Gogorra baina politagoa da, gainera zuri-gorritzko ikurrak hemendik jarraitzen dute, zuhaitz tartean igoko gara gas-bide adierazgarriak dauden agerrune batetaraino. Ezkeralderetik jarraituz eta beti ikurrak galdu gabe, laster helduko gara (Usokoaitza 915 m.) tontorrera (C). Hemen txartel kutxa aurkitzen da tumulo baten gainean, tumulo honen izena "Isikoaitza" da bertan dagoen plaka batek adierazten duen bezala.

Aurrera jarraituz, aldapa-behera gogorrean jaitsiz lepo eta gurutze-bide batetan egoteko (720 m.), beti aipatu ditugun ikurrak jarraituz, aurrez aurre beste aldapa gogor bat daukagu, orain gorantz. Aldapa hau amaitzean "Mirutxa" (890 m.) garaian egongo gara. Ezkeralderetik joko dugu 200 metrotarako dagoen lepora eta gurutze-bidera iritsiko garelarik, hemen "Elgea" deritzen zutarri bat dago (D). Hona heldu baina lehentxoago ezkeralderantz eta alertze tartean "Elgea I" izanez ezagutzen den trikuharria dago. Berriz irtengo gara bidegurutzera eta etorri garen pistatik aurrez aurre begiratzen badugu, bidexka bat ikus daiteke eta honek eramango gaitu tontorrera "Elgeamendi" (943 m.).

Igoera osoa ordu eta erdi.

Tontorretik 200 metrotarako "Urkutxa" izenez ezagutzen den iturria dago.



Itzultzerakoan "Usokoaitza" mendipera heltzen garenean, eskuinerantz eta beherantz doan bidea hartuz gero oso pista zabal eta eroso batetatik jaitsiko gara, hasierako zelai antzekoan aurkituko garelarik.

- Bidean zuhaitz mota hauek aurkitu genituen:
- 900 m: Pagoa, pinua, nekosta, elorri, zuria.
- 7000 m: Pagoa, gorostia, pinua.
- 650 m: Alertzea, pagoa, serbala, haritza, gorostia, izeia.
- 600 m: Panpanoa, haritza, urkia, pagoa, astigarra, haltza.

D E A N G O R A

DEABRUAK ESKENATOKIAN

SANTUTXUKO DEABRU BELTZAK TALDEAK «BIKIAK» LANA JAULARATU DU AZKEN HILABETEOTAN



Mahatserriko hainbat taldeekin berbetan egoteko aukera izan dugu askotan. Oraingo honetan, auzoko bi lagunek osatzen duten antzerki taldea ezagutaraziko dizuegu:

"Deabru Beltzak". Euren berezitasuna, ostera, profesionalak direla eta euskaraz egiten dutela lan.

Testua: **Iratxe Ruiz**

Euren burua Bilboko antzerki taldeetat jotzen badute ere, Santutxun jaioak dira eta bertan dute egoitza. Deabru Beltza den Garbitxuren ibilbidea antzerkiaren munduan aspaldikoa da. Izan ere, Kukubiltxo taldean hamaika urte eman baitu. 1989. urtearen bueltan burutu zen proiektuan hasi eta bertan buru belarri aritu ostean, taldean lekua lortu zuen.

Bertako kide batzuk eurak legez antzerkirako gogoz gainezka zeuden beste batzuekin bildu eta gaur egungo taldearen lehenengo urratsak eman zituzten. Taldekideek amets bakarra zeukaten: "Jende gaztearentzat ikuskizunak antolatzea". Helburu hori buruan lanean hasi ziren, inolako kanpo laguntzarik gabe, beraien kabuz. Bilboko Udalak tankera

honetako talde hasi berriei eskaintzen dizkien laguntzak eskasak dira eta Deabru Beltzek, horiek jasotzeak zelanbait "lotuko" zituztelakoan eskatu ere ez zituzten egin.

Hala eta guztiz ere, aurrera jarraitu zuten eta lehen saioa orain lau urte Santutxun estreinatu zuten: "Fermín Muguruzaren panpina eta espektakulua aurkezten genuen saioa izan zen", argitzen du Garbitxuk. Geroago Kontzertu Beltza lana eta 98an taldearen arrakasta ekarriko zuen antzezlan zertu zuten. "Ibiltariak lana koproduzioa izan zen, nahiko arrakasta handia lortu genuen eta hortik aurrera Deabru Beltzak profesionalizatu zen", azaltzen du antzezle santutxuarrak.

Lan honekin iaz Tarregan izan ziren.



INMOBILIARIA
Gelaya

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfnoc. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo



ZURE PUBLIZITATEA HEMEN
94 473 54 48



Edinburgon be lana ateratzea lortu zuten, Londren bezalaxe. Eta Italian barrena hainbat hiritan antzeztu zuten.

AURTEN «BIKIAK»

Pasa den uztailean "Bikiak", taldearen lanik eta berriena, estreinatu zen. Bertan, izenburuak argiro aditzera ematen duen moduan, bikote baten istorioa kontatzen den.

"Ibilgailu bitxi batekin lehendabizi egiten duguna da kaletik jendea antzokira erakartzea; eta orduan bazileen bidez jendea lotsarazten dugu".

Argi geratu ez bazaizu "Bikiak" obraren nondik norakoa, hona hemen definizio paregabea, Garbitxuren hitzetan: "Espektakulu kañeroa non jendea zirikatzen dugun,..."

Erakargarria, ezta? Ba lasai irakurle, datorren urteko Santutxuko jaietan parte hartzeko aukera duten oraindik ez dago zehaztuta baina bai ordea, urriaren seiaren inguruan "Iruneko gazteentzako antzerki erakustaldian" egongo direla. Kontutan hartu behar da Irunen parte hartzea nahiko zaila dela bai Euskal Herrian bai Estatu espainolean antzerki taldeak barra-barra daudelako. Zorionak!

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN
94 473 54 48



Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoc: 412 48 59

Biktimganako Laguntza Zerbitzua
Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarako Lanidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia




horoskopoa

-  **Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra. Egiak ez dizu/zaitu batere on egiten, gezurretan ere bizi zaitezke.
-  **Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Triste xamar azkenaldi honetan? Denbora badoa eta irribarreak badatoz.
-  **Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Udazkenak ohikeria dakar bueltan. Ez etsi, gauza berri asko daude probatzeko.
-  **Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra. Uda oso lanean eman ondoren, dirua barra-barra daukazu eta astirik ez. Hurrengoan aprobeztatzetza!
-  **Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra. Nahiz eta atzerrian ikasten egon, ez ahaztu lagunak hemen daukazula zain. Postaltxoren bat bidali eehh!??
-  **Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Lotsa alde batera utzi eta ekin bideari; asko dira hobetu daitezkeen gauzak zuen bien artean.
-  **Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra. Erretzeak ez zaitu batere on egiten. Buruhasteen aurkako konponbidea laguneren artean bilatu.
-  **Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra. Udako amodio historiorik bai!? Hara mutill!, inork ez daki horretaz ezerrez.
-  **Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Jaiak bukatu dira. Hurrengo mozkorra noiz ote? Lasai txo, gabonak gertu daude eta.
-  **Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Berandu heltzea ez da arazoa zuretzat. Jakin badakizu beti zure zain izango duzula
-  **Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Beti gauza bera buruan bueltaka. Egun osoa sexuan pentsatzen... ai! zure aitak jakingo balu...
-  **Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Urtero bezala, aurtan ere alergia kontuekin larri ibiliko zara. Medikuari bisita egitea edonor beldurtzeko moduko da...

agenda

- URRIAREN 3TIK 8RA:**
"DAALI" ANTZEZLANA.
ARRIAGA ANTZOKIA
- URRIAREN 9 ETA 10:**
"CUATRO CORAZONES CON FRENO Y MARCHA ATRÁS". ANTZERKIA.
ARRIAGA ANTZOKIA.
- URRIAREN 12TIK 14RA:**
"LA CENICIENTA". BALLETA.
ARRIAGA ANTZOKIA.
- URRIAREN 12TIK 15ERA:**
EGUZKILOREA MENDI TALDEAREN IRTEERA ARAGOIKO BISAURIN MENDIRA.
- URRIAREN 19:**
BENITO LERTXUNDI.
ARRIAGA ANTZOKIA.
- URRIAREN 20TIK AURRERA:**
"BILBO MENDEZ MENDE" ERAKUSKETA IBILTARIA.
OTXARKOAGAKO AUZO-ETXEAN.
- URRIAREN 23TIK 28RA:**
BILBO 700 URTE HISTORIA KONGRESUA. BIDEBARRIETA LIBURUTEGIAN.
- URRIAREN 26TIK 28RA:**
"JULIO CESAR" OPERA.
ARRIAGA ANTZOKIA.



MAHATSERRIKO HERRI ALDIZKARI euskaldunaren administrazio eta publizitate lanak bere gain hartu beharko ditu. Kontratua egingo zaio. Dedicazio partziala eskatzen da. Interesatuak deitu 94. 473.54.48 telefono zenbakira.



**Bilbo nire kotxe barik!
2000/IX/22.
Noizko Bilbo pertsonentzat?**



HILEKO ARGAZKIAK